

Araitz-Beteluko hizkera adierazkorra: biraoak

AMAIA APALAUZA OLLO

1. ATARIKOA

Nafarroako Araitz-Betelu ibarrean bildu ditugun sakreen berri ematea da lan honen helburua. Peio Kamino Kaminondo, Patxi Salaberri Zaratiegí eta Juan Jose Zubiri Lujanbio ikertzaileek hasitako bideari jarraituko diogu (ikus bibliografia); haiek Luzaiden eta Goizuetan egindako bilduma-lanetan oinarritu gara, hain zuzen, gure lana osatzeko.

Nafarroako ipar-mendebaldean dago Araitz-Betelu, eta zazpi herrik osatzen dute ibarra: Betelu, Intza, Arribe, Atallu, Uztegi, Gaintza eta Azkarate. Administratiboki, bi udaletan banatua dago ibarra: Betelukoa, alde batetik, eta Araizkoa, bestetik. Nolanahi ere, ibar geografiko berean daude herri guztiak, eta eguneroko bizitza ere elkarrekin egiten dute. Gipuzkoako mugan dago, eta hango bizilagunek harako joera handia dute. Garai batean, Tolosa zen erdigune nagusi garrantzitsuenara araitzar zein beteluarrentzat; horretan eragin handia zuen Tolosako feriak, oinez ere abiatu izan baita Araitz-Beteluko jendea Tolosara, etxeko produktuak saltzera eta eroztera, edo, besterik gabe, beste herri batzuetako lagunekin elkartzera. Gaur egun ere Gipuzkoarako joera handia dago, baina errepideek asko erraztu dute Iruñerako bidea ere, eta harako joera ere handia da beraz.

Ezbairik gabe, eremu euskalduna da, baina ezberdintasuna sumatzen da herri batetik bestera: *Beierriko* (behe-herriko) herriak (alegia, Betelu, Arribe eta Atallu), errepide ondoan dauden heinean, *Goierrikoak* (goi-herrikoak) baino erdaldunago ageri zaizkigu. *Goierrian*, nekazaritzari eta abeltzantzari loturik bizi dira neurri handi batean oraindik ere; *Beierrian*, aldiz, industria eta zerbitzuak nagusitu dira, eta nekazaritza eta abeltzantza bigarren mailako jarduera bihurtu dira.

Bestalde, antolamendu sozioekonomikoarekin batera, euskara ere aldatzen ari da Araitz-Betelun. Adinekoen hizkeratik gazteen hizkerara dagoen

jauzia nahiko handia da: alde batetik, Gipuzkoa aldeko hizkeren eragina nabarmena da gazteen jardunean (adinekoek *ekusi ot* erabiltzen dute; gazteek, berriz, *ikusi et*; adinekoek *joan gaa* eta gazteek *jun gea*, eta abar). Bestalde, Euskal Herriko beste txoko batzuetan ere ohikoa denez, euskara batuak eta bertako erdarak –gaztelaniak– arrasto nabaria utzi dute gazteen hizkeran.

Hizkuntzaren aldaketa maila askotan gerta daiteke: lexikoa omen da aldatzeko joera handiena erakusten duena. Pentsatzekoa denez, garai bateko bizimoduari lotutako lexikoa galdu da batik bat. Horren ondorioz, Araitz-Beteluko gazteek ez dituzte ezagutzen duela ez hainbeste erabiltzen ziren hitz asko; besteak beste: *atso-lorra* ‘erditu ondoren, herriko emakumeek amaberriari egiten zioten bisita’; *txaatille* ‘ardi-iletik haria egiteko tresna’; *gibel-arraie* ‘garai bateko jakia; arkumearen burua, gibela eta birrikak egosita prestatzen zen’; *muarratu* ‘zuhaitzari adarrak moztu’; *irugaie* ‘udaleko langilea; aziendak zaintzen zituen, beren barrutietatik beste batzuetara joan ez zitezen’, eta abar. Gaurko gazteek ez dituzte hitz horiek ezagutzen, gaurko bizimodurako behar ez dituztelako: gaur egun ez da *atso-lorrik* egiten, ez da haririk egiten, elikadura-ohiturak ere aldatu egin dira, baita lanbideak ere; beraz, bizimoduaren aldaketarekin batera, hari loturiko lexikoa ere galtzen ari da.

Baina, lexiko berezi horretaz gain, hizkera adierazkorrean ere galera nabarmenak sumatzen dira. Gai horri helduko diogu, hain zuzen, artikuluko honetan. Hizkera adierazkorrean barnean, zenbait atal bereizten dira: haur-hizkera, onomatopeiak, hipokoristikoak eta sakreak. Sakreen barnean, maldizioak, madarikazioak, haserrea adierazteko moduak, irain-hitzak, eta hala-koak biltzen dira. Horiek guztiak izango ditugu hemen hizpide.

Gazteek, halako egoeretan, gaztelaniara jotzen dute askotan; batzuetan, esan nahi dutenaren euskarazko ordainik ezagutzen ez dutelako, eta, beste batzuetan, berriz, euskarazkoa ezagututa ere, hura adinekoen hizkerari loturik ikusten dutelako. Horrelako egoeretan, gazteek nahiago dute gaztelaniazkoa erabili, adierazkortasun handiagoa lortuko dutelakoan-edo.

Egoera nola aldatu den ederki erakusten duten bi adibide ikusiko ditugu. Araitz-Beteluko adinekoek diotenez, garai batean, inoren kontra maldiziorik bota nahi izanez gero, *burroa* egiten zen¹. Batzuek beldurrez hitz egiten dute oraindik ere *burroari* buruz. Hona hemen Intzan eta Azkaraten jasotako leku-kotasun bana²:

Eta, lenau, maldizioa botatzeko, ola, beste pertsona batei, nola?

Oaj! Jende oik e bizittue, bai: (...) “Burroa bota zioat, burroa bota zioat”, tia!

(...)

Bai, oi: “Isasiko al tzaio oe!”, o “isasten bazaio eztok ongi ibilliko!”.

Ola, zerbatte txarra deseatzeko...

Kao! Barrunbe txarreko jendeak, eo intentzio txarrekoak izango zeen.

¹ M. Olanok (2005: 104) ere Leitzan jaso zuen *burro* forma, eta honako definizio hau eman zuen: ‘Hitzez adierazitako begizkoa’. Bestalde, D. Intzak *norbaitek burro egin dio* esaera topatu zuen Larraun-en; honako azalpen hau eman zuen: Biraoa, maldizioa bota dio. Ori esaten da norbait burutik nas-ten asi denean. *Burro*, *burho* esaten da Lapurdin eta alde aietan emen *birao* esaten dena. Nola etorri ote da Lapurdiko itz ori Larraun alderai? (1974: 43)

² Araitz-Beteluko ahozko tradizioa lan argitaragabetik hartutako pasarteak (ikus bibliografia).

Zer da burroa?

Jeel! Burroa, erdaaz astoa! [barreak] Burroa... burroik e... ez eñ al dozola iñoiz de... Burroa da, gaitze gaiztoa sartze'a, ta oi *ojo!* Zo[k] burro at etten balen bazo, oñ nola itten den e izango a, biño... Zuk oi batee...

Zer da, maldizio bat eo ola, ez?

Maldizio bat, eo gauze txar bat desatzea, ta oixe[k] tie.

Eta oi edozeiñek egin dezake?

Burroa? Bai, bai, bai, bai, zuk ee.

Nik e bai?

Bai, bai, bai, bai, oi ein dezakezuke.

(...)

Maldizioa botatzeko beste modu bat ere ba omen zegoen; *begizkoa*, hain zuzen. Hona zer dioen gai horren inguruan Gaintzako lekuko batek³:

Maldizioa bota izue, zui desafio bat een dizue, zui dagizu intxa, jar-tzen dizue, zui... amorru bat dizue:

–Au eztut ikusi nae, ba, au eztut ikusi nae!

Esanea da, oe gauze pisua da:

–Eztut ikusi nai.

Oi ezto sekula esan bear.

–Eztut begin aurrean ikusi nai.

Da batek artze'izo intxe:

–Ue eztut ikusi nai begin aurrean, eztut ikusi nae!

Jeneral pasatzen da, ola, asko... oe konproatu (u)t oi re, nai eztu nai bae aurrekaldean jarriko! Aske(i) pasa zaie oe, ikusi nae... eztu nae antxe aurrekaldean jarri, da:

–Nik oe eztut ikusi nae, ne one[k] in dit min aundik... in dazkit, ez-tut ikusi nae.

Ta ola, ta desafioa etten die oe:

–Alako pasako al zaio, ba? Alako gertatuko al zaio, ba? Il eengo al da, ba? Elbarritu eengo al da, ba? Ez al du, ba, onik izango?

Da, urdun, esan bear duzu:

–(...) auxe pasako al zazu, ba!

Ba, karaz kara esaten dizu:

–Auxe pasako al zazu?

Zuk seittun esan bear diozu urruna:

–A, bae! Atea den lekun sar daallela, atea den lekun... atea den lekun sar daillela!

Da orrekin ya salbatuta zaude, o...?

Bai, “atea de (lekun) sar daallela”. Arre[k] desafio gaixtoz een dizo, gorroto gaizto atekin, da zuk esaten diozu: “Atea den (lekun) sar daallela”. Zuk zugandik atea bea'zu, mingañeti atea zazu gorroto gaizto ori, da zue barrunen sartu daallela berriz; da arri pasatzen zaio.

Gaur egun, nekez entzungo dugu halakorik gazteen artean; maldiziorik botatzeko ohiturarik ez dago dagoeneko, eta, inor iraindu nahi izanez gero, oso bestelako esaerak erabiltzen dituzte (*jun deilla porkulo artzea!*, adibidez). Nolanahi ere, adinekoen esaera berak erabiltzen ez dituzten arren, Araitz-Beteluko gazte batzuk behinik behin gai dira euskaratik bertatik sortutako irain- eta iseka-hitzak asmatzeko; hor dugu, besteak beste, *eropolio* hitza (bu-

³ Araitz-Beteluko ahozko tradizioa lanetik.

ruarin samarra denari esaten zaio). Euskarazko hizkuntza-sena indartsu da-goela adierazten du horrek: interesgarria izango litzateke gai horren inguruko ikerketak egitea, zalantzarik gabe.

Artikulu honetara dakartzagun adibideak Araitz-Beteluko jendeari jasoak dira den-denak (adinekoei eta helduei, batik bat). Zenbaitetan, unean-unean jaso ditugu forma horiek; beste batzuetan, berriz, hiztunei egoera jakin batzuk proposatu, eta egoera horietan zer esango luketen galdetu diegu; bikaina izan da emaitza. Forma horietako batzuk aski orokorrak dira euskaraz, baina badirudi beste batzuk hedadura txikiagokoak direla. Bestalde, bibliografian arakatzen ere ibili gara zertxobait, eta, hartaz baliatuz, interesgarritzat jo ditugun zenbait datu eta adibidez osatu dugu gure lana.

Sei atal bereizi ditugu:

- a. Harridura-hitzak eta -esapideak
- b. Akats fisikoak txarresteko hitzak eta esamoldeak
- c. Nortasun-ezaugarriak txarresteko hitzak eta esamoldeak
- d. Zirtoak edo ateraldiak
- e. Epistolak
- e. Pertsona-izengoitiak

Laguntza eman diguten araitzar eta beteluar guztiekin zorretan gelditzen gara, baina bereziki eskertu nahi ditugu Maria Estanga Balda gaintzatarra, Koldo Apalauza Etxarri beteluarra, Kontxi Arraztio Saralegi beteluarra eta Iñaxio Saralegi Goikoetxea gaintzatarra. Eskerrak eman nahi dizkiogu halaber Patxi Salaberri Zaratiegi irakasleari, lan hau egiteko proposamena egiteagatik eta emandako aholku eta laguntza guztirengatik.

2. ARAITZ-BETELUKO SAKREEN BILDUMA

a. Harridura-hitzak eta -esapideak

Momentuko desadostasuna, harridura edota haserrealdia adierazteko hitzak eta esapideak emango ditugu atal honetan. Hona zerrenda:

Arraio

1. Harridura-hitz gisa agertzen da batik bat: *Arraio, zikiñe, or ao!*
2. Izen gisa ere azaltzen da; Fernando Amezketarraren pasadizo honetan, esate baterako: *Joan de Garaioa, igual da balin baaiz inpernuke arraioa!* [barrreak] *Fernando diru arrekin etxea zijoak!*

Bai, zera!

Esandako zer bait sinesten ez denean esaten da:

Motozerra? Bai, zea! Frantzie joan da aurreneko urtean etzen motozerraik! Dena eskuz!

Demonio

1. “Demente” hitzaren tankeran ager daiteke: *Ze demonio a oi?*
2. Izen gisa ere agertzen da: *Oaintxe inpernuke demonioik ez ote (o)k etorriko launtzea!*

Eguberri laugarrena

Zozoa, inozentea esan nahi du.

D. Intzak bildu zuen Araitzen: *Ago ixillik, Eguberri laugarrena!* (1974: 27).
Honako azalpen hau gehitu zuen Intzak:

Eguberri laugarrenean (abenduarien 28'an) Herodesek ildako mutiko
"Inozenten" jaia baita.

Hara!

Adibidez:

Ezpaozo lanik eitten, eztozo geo deus e artoko, aa!

Izorra hadi!

Norbaiti txarra desiratzeko erabiltzen da:

Izorrai, beingoati! Beti bestei ziriheka ai; ba, oaiñ, izorrai!

Joder, joe, jolin

Oso erabiliak dira hirurak, baina "jolin" emakumeek esaten dute batik
bat. Gaztelaniaz bezala erabiltzen dira.

Jodi hadi!

"Izorra hadi!"-ren kidekoa da.

Joditza zeukak!

"Izorra dadila!" esan nahi du; alegia, elkarriketa-unean ez dagoen beste
norbaiti txarra desiratzeko erabiltzen da.

Guk abixatu giñioan ba etortzeko! Oaiñ, enteatu ezpada, joitzea zaukek!

Kaka zaharra!

Zerbait espero ez bezala ateratzen denean esaten da.

Kaka zarra! Gaor e beando naalle Mariangana joateko; biar joan bearkot.

Kaka mordoiloa!

"Kaka zaharra!"-ren kidekoa; apika indar handiagoa du "kaka mordoiloa"
esapideak. Biak batera ere ager daitezke:

Kaka zarra ta kaka mordoltoa! Sekule etzat nei olakoik paastu, ta gaur...!

Kakitzat!

"Kaka hiretzat!" esan nahi du.

Kakitzat, onbre! Nazka-nazka inda naukek anbeste joan-etorrikin, dios!

Kauenlalebita

Hona adibide bat:

Sartu a, ta an eon ze oik, maki oi[k], da kauenlalebita!

Koño

Honako aldaera hauek erabiltzen dira Araitz-Betelun: *koño, koñe, joño, joñe.*

Mekaben

Aldaera hauek ditugu Araitz-Betelun: *mekaben, mekasuen, mekauen, me-
kaguen.*

Motel, moteldu

1. Lagunartean erabiltzen da, makulu gisa-edo:

[Bazkari batean] *Artzak ik azkenekoa, motell!*

Motel, naiko ardoa emango iau, ta atea bear... ze bear don galde aiok.

2. Eskarmentu gutxiko pertsonari ere esaten zaio.

Ako etxeko oi motela ok, geo!

3. Gatzik gabea edo grazia handirik ez duenari ere esaten zaio:

Bai, ue ziero moteldue dao; oain dela berroi urte ezaoto baziñue!

Etziñuen ekosi? Nexka motel-motel bat zen, gatz[i] baekoa.

Redios

Honako aldaera hauek bildu ditugu Araitz-Betelun: *redios, ledios, dedios*.

Ostra

Ostra, ostras eta *la ostra* erabiltzen dira Araitz-Betelun.

Puñeta

1. Makulu gisa-edo erabil daiteke:

Aurpegie izaten zen, ba, erregeana puñetan batena; ta zortziko andi arrekin, kax!

2. Gaztelaniazko *echando puñetas* ere ageri da; “azkar batean” esan nahi du.

(...) eetten tzitzaaien abitzean txirrike bakoitzei olio pixkat bota; da, urdun, echando puñeta tortzen tzeen earki.

Zakurraren putza!

Sinesgaitza den zerbaite entzundakoan esaten da.

Ze esan due? Biar etorriko deela? Bai, zea! Zakurreen putze!

b. Akats fisikoak txarresteko hitzak eta esamoldeak

Pertsonen akats fisikoak aintzat hartuta eraturiko zenbait forma ikusiko dugu atal honetan. Gehienak ‘Izena + adjektiboa’ egituraren bitartez osatuak dira, baina badira izen soil batez zein adjektibo soil batez osatutakoak ere. Ikus ditzagun:

Alzapatas

Mainguka hanka bat goratuta ibiltzen denari esaten zaio.

Atsomotz

Txiki-, lodi- eta zabal-antza diren amonei esaten zaie.

Ango atsomotza etorri zizaiun launtzea, ta ezin zen muittu de ein! Etziun batee laundu!

Begioker

Begi okerrak dituenari esaten zaio.

Eleetxeko begiokerra or dok!

Behi

1. Gizena, lodia.

Orroko orrek beie emate'o!

2. Baldarra, behien antzera ibiltzen dena.

Beieen muun tzaallek mutiko oe!

Bekorri

Begigorria.

Haserretzean begiak gorri-gorri jartzen zaizkionari esaten zaio.

Osaba bekorri or tzaaillen Tolosan lengoan, ardo pare at eanda, bai.

Halaber, ihoteetako ñañoarroi zera kantatzen zitzairen Araitzen:

Ñañoarro, bekorri
Zapela bete zorri
Atzo joan,
Da gaur etorri!

Belarrihandi

Amezketako belarriaundi et etortzen tzen goekin eskolaa, bai.

Buruhandi

Ume buruandie atea zaio goe Ixabeli.

Gazta-handi

“Buruhandi”-ren kidekoa da. Nolanahi ere, hiltun batzuek esan digute burusoilak direla gazta-handiak, ez bestiak.

Ara, ortxe eldu'k Matxindoko gaztaundie!

Enano

Altuera gutxiko pertsonari esaten zaio.

Bere, enanoa or tziek, eta eztok autobuse artzeko aña!

Enborhandi

“Tripa-handi”-ren kidekoa da.

Aa, motillek, enbor aundie zaoket emakome orrek! Atso enborraundie!

Enforru

Bere kontuak kanpora ateratzen ez dituenari esaten zaio.

Gaztelaniazko *reservado*-ren kidekoa da.

Enforru orrek asko zakik!

Orrek baik enforrue!

Exker

Ezkertia; badirudi garai batean “gaizki egindakotzat” hartzen zituztela ez-kertiak.

Hankabeltz

Hanketan bizarrak eta zainbilduak dituenari esaten zaio.

Ankak ziero bextuta aozken, eztiene kasoik eitten. Ankabeltza!

Hankamehe

Fiure txarra on anka me oikin! Ara, goe ankamea...!

Hankamotz

Nee iruittun, ba, Pastaalleanea Arriben jarri zuen denda bat, eta, geo, Betelun ee Martolo ankamotza-o, Urrizalkiina; famatue zen oso.

Atso ankamotz oe! Akatu ingot eun otako batean, bai!

Hankazar

Hankahandia.

[Jentilei buruzko testu batean] Ezorrek emen tzittuen... bueno, oaingo... ia gizon batek aña, ola, ankezar bakarra! Ikaragarritzko [indarrez] gizonak!

Hortzandi

Hortz handiak dituenari esaten zaio.
Ekosi ot gaur e Beteluko ortzaaundi oi, bai oixe!

Hortzamakets

Hortz itsusiak eta oker samarrak dituenari esaten zaio.
Oiri umea ortzamaketsa atea zaie! Gaixoa!

Ipurdiestu

Ipurdi txikia duenari esaten zaio.
Gizon orrek atzekaldea estue ok! Epurdiestue!

Ipurdi-ihar

Sille sobratzen tzaiok orrei eseitze'enean, eportiarra!
 M. Olanok *epurtiar* bildu zuen Leitzan (2005: 130).

Ipurtandi

Atso eportaundie! Eportaundi orrekin denak botatze zeattik paasten aste'enean!

Ihar

Iharra, argal-argala, eskasa.
Eztozo ezautzen? Gizon ttiki bet da, iar-iarra.

Kalparluze

Ile luzea duenari esaten zaio. Irainztat har daiteke, zikinaren edo gaizki orraztutakoaren zentzuan.
Eztik garbitzen kalparluze orrek bear bezala!

Lepoker

Lepoa okerra duenari esaten zaio.
Lepoker geatuko al aiz!

Letxon

Esnea emateko gaitasuna duen zerrama da letxona; bular handiak dituen emakumeari esaten zaio.
Or tziek letxon oe!

Marta

Arropa ilun-iluna jantzita ibiltzen denari esaten zaio.
Eleetxeko marta etorri men dok gaur guizean!

Masusta

1. Gizena.
Oe masuste!
Andre oe masuste biurtu'k!
2. Arrazoirik izan gabe negarrez hasten dena. M. Olanok ere adiera horretantxe dakar, Leitzarako (2005: 284).

Motz

Altuera txikikoa eta lodi samarra denari esaten zaio.
 Askok erabiltzen da izengoitiak jartzeko; adibidez, *Martin Motz*.

Muturzikin

*Neska orrek ezto muturrik garbitzen, muturzikiñe!
Etorri ona, ume muturzikiñe!*

Muturhandi

*Lotsagabeari edo aurpegi handia duenari esaten zaio.
Oe muturraundi xamarra ok, bai; etxea etorri, ta nai dona itte'o ta!*

Oliontzi

*Itsusia denari eta zikin-antzean ibiltzen denari esaten zaio.
Oliontzie esaten giñion ango neskato bati, zikiñe zen da!*

Peloito

Lekukotasun bakarra jaso dut: "peloito" esaten omen zioten ilea kixkur-kixkur zeraman Gaintzako mutil bati: Ostokaizko peloito.

Potzolo

*Oso gizona denari esaten zaio.
Izengoitiak jartzeko oso erabilia: Martin Potzolo, Enrike Potzolo...
Ekosi ot gaur Tolosan Atzoittiko potzolo oi, ama!*

Putreak adinako sudurra

*Sudurluzeari, sudurhandiari esaten zaio.
Putreak añeko suurre dauke orrek!*

Sarnoso

*Aurpegian pikor asko dituenari esaten zaio.
Sarnoso! Aurpegi guzie dena sarnak josita dao oe, sarnoso nazkarrie!*

Solitariak jota

*Oso-oso argala denari esaten zaio; emakumeei, gehienbat.
Ai, neska; ze pasatze zain? Solitariak jota aola emate'on!*

Sudurkako

*Arrano-mokoaren formako sudurra duenari esaten zaio.
Petronaneko ue suurkakoa zen, itsusie.*

Tisiko

*Tisikoa, oso argala.
Tisikoa emate'on, i!
"Solitariak jota"-ren kidekoa.*

Tximaluze

*Ilea harro-harro duen pertsonari esaten zaio.
"Zapelatxa"-ren kidekoa da.
Arraioa! Ume tximeluze oe arrapatuko banu!
Neska tximeluze asko dao oaiñ, e!*

Txinko

*Mainguka hanka bat arrastaka eramanda ibiltzen denari esaten zaio.
Etorri ai onea, kamionero txinko!*

Zalkor

Konkorduna (gaztelaniaz, *cheposo*).

Sorgiñ arrek bota zun maldizioa etzela Intzeko etxe ortan sekule zalkorrik faltako! Ta asmatu zun!

Zangun

Konkorduna.

“Zalkor”-en kidekoa da.

Zapelatz

Ilea harro-harro duenari esaten zaio.

“Tximaluze”-ren kidekoa da.

Ume orrek zapelatxa emate'ik!

Zapela-handi

Txapela handia daramanari esaten zaio.

Zapelaundi orrek kriston zapela zeamakean gaur ee!

Zapo

Zapoaren itxura fisikoa duenari esaten zaio; alegia, geldoa, motela eta lodi-antza denari.

Ako arrek zapoa emate'o, ibiltzeko posture orrekin!

c. Nortasun-ezaugarriak txarresteko hitzak eta esamoldeak

Pertsonen nortasunari eta izateko moduari begiratuta sortutako formak ikusiko ditugu orain. Nabarragoa da talde hau; izan ere, askotariko egiturak baliatuta eratuak dira forma horiek: ‘Izena + adjektiboa’ egitura, izen nahiz adjektibo soilak, hitz elkartuak zein konparaziozko egiturak aurki daitezke.

Ahobero

Behar ez dena esaten aritzen dena.

Ao ixilik, agobero alakoa! Beti bear ezteenak esaten aitze aiz i!

Ahotik joanda

Behar ez direnak esaten aritzen denari esaten zaio.

Apez oe aoti joanda zaillek!

Ahoustel

Pertsona faltsuari esaten zaio.

Eon ai ixili(k), aoustela!

Ahozabal

Behar baino gehiago hitz egiten duenaz esaten da.

I, aozaal alakoa! Ao ixilik, aoa zaal eiñik daokek eta!

Aireak jota

Makurtuta edo erreumak jota balego bezala ibiltzen denari esaten zaio.

Bazirudik aideak jota daola!

Aldrebes

Gauzak gaizki egiten dituenari esaten zaio.

Nik eztiat esan oe ekartzeko, motel; aldrebes earra aiz!

Alferrondo

Oso alferra denari esaten zaio.
Jeki ai orti, alperrondo alakoa!

Alkahueta

Kontakatilua; jendearen kontuak entzun, eta gero kontu horiek zabaltzen aritzen den pertsonari esaten zaio. Emakumeez esaten da.
“Enbustera”-ren kidekoa da.
Oi zeñek esango zion orri? Alako baserrikoak esango zion, alkaueta utse a ta!

Alu

Hona adibide bat:
Eta aurten esan nion, ba, kukui, ta lau urte bakarrik etzazkiten, ba, esan!
Alue! esan nion.

Alproja

1. Bitxoa, pieza ederra.
Alproja alakoa!
2. Alferra.
Jeki ai, alproja at eiñik ao!

Arlote

Pobre-antzean –itxuraz zein janzkeraz– ibiltzen denari esaten zaio.
Arlote-arrazakoa da oe!

Arranoa baino gaiztoagoa

Alegia, oso gaiztoa.
Arranoa baño gaiztooa zen goe maixu ue! Redios!

Astapotro

Asto edo basati samarra denaz esaten da.
Astapotro earra da oi, bai!

Astar

Axolagabea; ezerगतik ardurarik ez duen pertsonari esaten zaio.
“Potrohandi”-ren kidekoa da.
Orroko motill orrek astarra emate'ik!

Ahuntz

Eroa, zoro samarra denari esaten zaio.
Ekosi al dok gaur Axkaateko auntze? Beti bezala zaillen ue!

Axa

Zakurrari ardiak bil ditzan egiten zaion oihua dugu “axa!” delako hori. Alabaina, koadrilako *axa* esaten zaio besteei zirikaka aritzeko ohitura duenari.
Gaur ee etorri ok axa oi koadrillea, ta beti bezala asi ok axaka!

Axolagabe

Deusगतik ardurarik hartzen ez duenari esaten zaio.
Axolagabe naiz ajolakabe aldaerak ageri dira Araitz-Betelun.
Gauze at eiñ o beste at eiñ etzaio batee inporta ajolakabe orree!

Azpizikin

Narratsa, zikina.

“Enaxa”-ren kidekoa da.

Deskuidoso xamarra zabillek oe, bai, azpizikiñ oe!

Aztalzikin

Hankak zikinak dituen.

Orrek kasoik ezto eitten; besoak garbitto bai, biño ara, aztalzikiñe utse ok!

Babalasto

Txepela.

Honako adibide hau dakar D. Intzak (Araitzen bildua): *A zer baba-lastoa den ori!* (1974: 28)

Baztertu

Baztertua, marjinatua.

Ue beti bakarrik eiltzen tzena zen, baztartue.

Begiluze

Adibidez: Bazkaltzeko garaian janari pila bat hartu platerean, eta, gero, hartu duen guztia ezin bukatu duenari esaten zaio.

Or tziek, gauzen atzetik, beti bezala, begiluze oe! Al dun guzie arto, ta zeta...

Beldurri

Eozin gauzekin ikaatota zeallek bildurri oe!

Berdulero

Sexuaz eta berdekeriez etengabe aritzen den gizonaz esaten da.

Gaztelaniazko *verdulero* hitzetik dator, ezbairik gabe.

Gaur ee azaldo a oe, ta asi a berdulero oe beti bezala, beti itz berdulero oikin! Nazka emate'o!

Buztanbeltz

Emakumezalea den gizonari esaten zaio.

Oo! Asi uk goe buztanbeltza betiko muun!

Demonio ahula!

Akordatzen naiz goe atte zenak nola esan tzion bein orri: Oa emendi! Demonio aule!

Demonio txorora!

Diruzale

Dirua asko gustatzen zaiona da.

Orrei paato zien, bai, fabriken, biño eztik asko gastatoko; diruzale earra ok!

Elbarri

Mugitzeko arazoak dituenari esaten zaio, pertsona adinekoari batez ere. Pertsona horrek ez du zertan elbarritasun-gaitzik eduki.

Attun elbarri oe!

Seko elbarrittue dao ango attuna!

Elkollatu

Pertsona ahulari esaten zaio.

Biño ze arrazakoa ok oe! Elkollatue zeok!

Emagaldtu

Mutiletan asko ibiltzeko fama duen emakumeari esaten zaio.

Enaxa

Zikina, narratsa.

Enaxa inda zaailen gaur ee emakome oe!

O. Ibarrak *enasa* eta *enaskeri* jaso zituen Imozko Etxalekun (1995: 679), eta M. Olanok ere *enasa* bildu zuen Leitzan (2005: 128).

Enbustera

Kontakatilua; besteen kontuak haizatzen ibiltzen den emakumeari esaten zaio.

“Alkahueta”-ren kidekoa da.

Zerbatte jakin, da esan bae eoten eztakina da, enbustera alakoa!

Eputx

Giputza; Gipuzkoatik Araitza bizitzera etorritakoei esaten zaie. Zentzu txarrean erabiltzen da betiere.

Apezakin kontu asko zuna zen Urdumilko eputxe, bai oixe!

Errutu

1. *A ze errutue daon oe!* ‘Ez dago burutik sano’.

2. Ahul eta besteak baino txikiago jaiotzen den txerrikumeari esaten omen zaio “errutue”; beraz, ahula eta eskasa den pertsonak iraintzeko ere erabiltzen da.

Eskale

Beti merkezurrean dabilenari esaten zaio; esaterako, merkatuetan eta dendetan gaiak ahalik eta merkeen erosten saiatzen dena.

Oi ezautzen diat, pai; a ze eskalea en oe!

Eskuluze

Berea ez dena hartzeko joera duenari esaten zaio.

I, eskuluzea, utzi zak oi or!

Eskuzikin

Lapurrari edo lapurretaren bat egin duenari esaten zaio.

“Eskuluze” baino iraingarriagoa da.

Ue goe artaburuk artzen eiltzen tzen, eskuzikiñ alakoa!

Fanfarron

Norberak egiten duena haizatzea eta nabarmen gelditzea gustuko duenari esaten zaio.

Fanfarron oe fanfarronkeiko aurpegikiñ ibiltzen da beti!

Gaixo

Neskei esaten zaie.

Gaixoa! Bee lana nik eingo nula pentsatzea de!

Gaizto, gaixto

Biak erabiltzen dira, baina x-dun aldaera baino iraingarriagoa da z-duna; are gehiago, x-dunak maitasun-kutsua duela esan daiteke.

Da ue re gaixtoa, Maixaal, da ue txakur biurtzen tzela, sorgiñe, or, erreka-zulo ortan.

Otsobi oso gizon gaiztotaako eukitzen giñun guk.

Gaiztozko

Sorginei buruzko ipuin batean:

“Onezkoa balen baaiz, mintzai⁴, ta, gaiztozkoa balin baaiz, ondai⁵”.

Galtzazahar

Arropa zikinak eta puskatuak erabiltzen dituenari esaten zaio.

Pantalon puskatuta zaillen gaur ee galtzazar oe!

Ganbelu

Otzanegia eta geldoegia denari esaten zaio.

Mugi ai beingoz, ganbelue!

Gexal

“Txotxolo”-ren kidekoa da.

Nexkato gexal batekin tzeoan gaur goizean goe Martin.

Gezurtero

Ahotan gezurra besterik ez duenari esaten zaio.

Gezurtero utse zen oi; etzen fiatzekoa, ez.

Gibel-handi

Alferrari esaten zaio.

Gibelaundi et eiñik au, ta altxa ai ortik!

Gizagaixo

Gizaaixoa!

Gizajo

Mutilentzako balio du.

Ue re eskalea, gizajoa, Lazaro. Da, kosi zunean bee zea, goseak ibilliko zan gizajoa, zerbat naeko zun-da.

Goiz-oilanda

15-16 urtetan mutiletan ibiltzen hasten den neskari esaten zaio.

Goloso

Asko jaten duenari esaten zaio.

Goloso da gaur ume au!

Guardia zibilak baino alferragoa

Oso alferra denari esaten zaio.

Guarda zibillek biño alperragoa aiz i!

⁴ mintza hadi.

⁵ honda hadi ‘lekutu hadi, desager hadi’.

Haize-poltsa

Ero samarra den neskari esaten zaio.
 “Txoriburu”-ren kidetsukoa da, baina neskentzako bakarrik balio du.
Pestetaa joan, ta soñue aittu orduko dantzaz asten tzen aize-poltsa ue!

Harpa-jotzaile

1. Adar-jotzailea; jendeari adarra jotzen ibiltzen den pertsonari esaten zaio.
 2. Agintzea bai, baina egitea gustatzen ez zaionari esaten zaio.
Oe arpa-jozale ikaarrie! Besteei aindo, ta beak gutxi ein!

Harroputz

Ez ein kasuik geo orri, e! Arroputze utse ok!

Hozkildu

Beti hotzak akabatzen dagoenari esaten zaio.
Sarto ai onea, ozkildue ao ta!

Infernuko ataka baino beltzagoa

Alegia, oso gaiztoa.
Inpernuko ataka biño beltzagoa dela!

Inozo

Onegia den edo eskarmenturik ez duen neskari esaten zaio.
Iñozoa aiz i, geo! Oi siñistatzea del!
Neska iñozoak baigiñen ordun gu, ta ez giñakiun deus ee.

Ipurbeltz

Mutilzalea den neskari esaten zaio.
 “Ipurzikin”-en kidekoa da.
Marizikiñ ipurbeltz oi!

Ipurterre

Ipurterrea, kexatia.
Beti gauzek jasotzeko ta jasotzeko, ta, ezpaozo eitten, asarretu eitten da, atso eporterre oe!

Ipurzikin

1. Zikina, narratsa.
Eporzikiñe!
 2. Mutilzalea den neskari esaten zaio.
Marizikin ipurzikin oi!
 “Ipurbeltz”-en kidekoa da.

Itsu

Itsua; ikusten ez duena.
Itsue al ao! Ez al dok ekosten an aurrean daola?

Izu

Eskarmenturik gabea-edo; besteen aurrean ikaratzen dena.
Izu xamarra zen ue, bee kasa iiltze zen beti; etzen batee iiltzen koadrillan-da.
 Gazteen artean, “izu” esaten zaio mutilekin tratuan aritu, baina gero larutan egin nahi izaten ez duen neskari.

Jitana

Gaztelaniazko *gitana*-tik dator, baina saltsazalea denari-edo esaten zaio Araitz-Betelun. Gaztelaniazko *pillina*-ren tankeratsukoa.

Bateti bestea iiltzen dien jitana oitakoa da.

Kabroi

Gaztelaniazko *cabrón*.

Kabroi oe!

Kaiku

Txotxolo samarra denari esaten zaio.

Orren gizona kaiku-antza on; beti bee gauzetaa joate'on, besteei kasuik ein bae.

Kakagile

"Kaka-egilea" esan nahi du berez (Adibidez, *kakaille nao*). Iraintzeko ere erabiltzen da:

Pillotari oi kakaille daola emate'ik!

Kakalardo

Eon ai ixili, demonio kakalardoa!

Kakazu

Kakazua, kakatia.

Eozin gauzeekin ikaatzen da ume kakazu oe!

Kakoilo

Kakazua, oiloa.

Ume kakolloa!

Kamuflatu

Gauzak diren bezala azaldu beharrean, ez diren bezala azaltzen dituenari esaten zaio.

Gauze atekin beste at esate'ik kamuflatu orrek!

Kankailu

1. Kankailua, burugogorra.

Da drotiñe re, ue ikaa! Apezak, kankallue zen gañea, ue uuuf! Ala zen, e!

2. Oso erraz eta txikikeriengatik haserretzen dena.

Zerbaitte esan tzioat gustatu etzaiona, da kankallotuta jarri ok!

Kaskagogor

Kaskagogorra, burugogorra.

Izketan asi naizenean, etzeen aitto nai kaskagoor orrek! Amorrazioa emate'it!

Kaskailu

Kaskailua, burugogorra.

Kaskallue aiz i geo, e!

Kaskarro, kazkar

Mozkorra.

*Ba... bezperan ibiltzen tzeen, esango izot, bezperan mutillek ibiltzen tzen es-
kean, kaskarro-kaskarro einda etortzen tzeen onea [barreak], da, geo, afarie
itten tzuen; azkeneko errematea emen izaten tzuen [barrez]!*

A ze kazkarra arrapatu zuen oik!

M. Olanok *kazkar* eta *kazkartu* bildu zituen Leitzan (2005: 238)

Koipezu

Zikina, narratsa.

[Bazkari batean] Belaxe koipea dariola aste'ok ume koipezu au!

Kontakatilu

Gaztelaniazko *cotilla*.

Belaxe baziak oe bestei kontuk esatea, atso kontakatillue!

Koxkor

1. Balio gutxikoa.

Ara Eleetxeko goe koxkorra! A ze gauze txikie en!

2. Sinpatiaz ere erabil daiteke:

Ara goe mutikoxkorra!

Kukurruku goian

“Aberatsak beti kukurruku goien”. Aberatsen handinahia-ri eta goranahia-ri erreferentzia egiteko esaera.

Kuluki, kuluke

Ipurdiari begiratzea edota ipurdia ukitzea gustatzen zaion gizonari esaten zaio.

Kuluke utse iñe dao oe!

Lepabeltz

Aurpegi handia duenari esaten zaio.

Gaztelaniazko *jetas*-en kidekoa da.

Muturre baukek ik, lepabeltz orrek!

Lepamehe

Erdi txotxoloa.

Ume lepame oe beti nearrez zeok!

Listo amorratu

“Alproja”-ren kidekoa. (Gaztelaniazko *pillo*)

Intzeko ue... listoa zen, listo amorratue zen!

Lotsagabe

Lotsabare, lotsabae eta *lotsabareko* aldaerak erabiltzen dira.

Gaur ee, etorri, ta bee kaoti asi dok lotsabaeki!

Madarikatu

Askotan, beste irain-hitzen batekin batera joan ohi da.

Zerri madarikatue!

Madarikatu zikiñ oe!

Makal

Motela, ahula; oso animosoa ez dena.

Erdi makal zien gaur oe.

Atzo ekosi nun zea, da ziero makalduta daola esango nuke.

Mandozar

Asto samarra den emakumeari esaten zaio.

Mandozarra biño okerragoa aiz i!

Marikoi

Neska-itxura duen mutilari esaten zaio.

Marilandar

Dena modu esajeratuan ordenaturik eta txukundurik edukitzea nahi izaten duen emakumeari esaten zaio.

Ue marilandar-antza uk, i!

Marizikin

Neska zikinari esaten zaio.

Betiko muun tzien marizikiñ oe, enaxa alakoa!

Mingainluze

Behar denaz eta behar ez denaz hitz egiteko ohitura duenari esaten zaio.

“Kontakatilu”-ren kidekoa da.

Gaor ee azaldo zatek mingainluze oe, ta ixiltzeko esan tzioat.

Miru

“Txotxolo”-ren kidekoa da.

Betiko mirue zeaoan emakome oe gaur ee, erreta bezala.

Mozkorondo

Mozkorra.

Mukizu

Umeei esaten zaie batik bat.

Ume mukizu alakoa!

Ipuin bateko pasarte batean ere ageri da:

Asto zarra mukizu, malezi asko dakizu; nik berriz errekondoan arrapatzen bazattot, eztozo mezaik entzungo!

Mutilzahar

Gizon ezkongabeei esaten zaie.

Gizon ezkongabeek alfer-ospea dute Araitz-Betelun.

Orroko baserriko mutilzar oik or eongo ttok, etzanda eun guzin, telebisoai beire!

Narrats

Zikina.

Nazkagarri

Nazkagarria, nazkantea.

Katu nazkarri au zer daalle!

Nazkagarri zikiñ oi! Ze itten tzaio oni?

Nazkaarri oi akaatu ingo nuke, bai!

Negarkatilu

Negartiari edo oso ezkorra denari esaten zaio.

Ao ixili, nearkatillue!

Neskazahar

Hango emakumeek diotenez, oso gaizki ikusiak daude emakume ezkon-gabeak; oso iraingarritzat dute *neskazar* forma.

Ñaño

Balio gutxikotzat jotzen denari esaten zaio.

“Txotxolo”-ren kidekoa da.

Deusetako etzun balio ñaño orrek!

Oilo

Eskasa, kakazua.

Eon ai ixili, demonio olloa!

Ollo atek aña ezton balio-ta!

Oiloa baino putagoa

Gaztelaniazko *puta*-ren parekoa da.

Olloa biño putaoa da oi!

Oiloak adina indar

Indar gutxiko pertsonari esaten zaio.

Olloak aña indarra eztaokek!

Panaarro

Harrokerian ibiltzen denari esaten zaio.

Taarnan or tzaillen Matxindoko panaarro, arro-arro inda!

Parrandero

Parrandazalea. (Gaztelaniazko *parrandero*-tik)

Ue parrandero ikaragarrie zen!

Mañerukoa... bazen emen, ola, parranderoa zen, taarna asko gustatzen zi-tzaion, parranderoa, ta gizon lasai ta trankiloa gañeakoan.

Txirrita parranderoa gazte-gaztetan, da [bertso] oi saardotein batean-eo bo-tako zun.

Parte gaiztoko

Ez fidatzekoa.

Da antzeman tzion ue parte gaiztoko zela.

Petral

Erraz haserretzen denari esaten zaio.

Neska, naikoa un! Ez ai aña petrala izan!

Pintterdi

Mozkortari esaten zaio.

Izengoiti gisa erabili izan da; adibidez, *Pello Pintterdi*.

Pipia jota

Gaixo-itxura duenaz esaten da.

Orroko baserriko oe pipie jota daola emate'o!

Pizti

Gaztelaniazko *espabilado*.
Ue bai piztie; bazeakin, bai, besteana beantzako de artzen!

Potrohandi

Potrohandia, axolakabea.
 “Astarra”-ren kidekoa da.
Oañ ee lanik pae zeok potroaundi oe!

Potro jorran

Eguna kolperik ere jo gabe ematea da potro jorran aritzea.
An aiko die oik gaur ee, potro jorran eun guzin, kolpeik ee jo bae!

Potroso, potrosa

Nagikeriarako joera duenaz esaten da.
Ue bai potrosa, emakome oe!
Orrek eztizo ingo; potroso utse da.

Putakume

Gaztelaniazko *hijo (de) puta*-ren parekoa da.

Putaseme

“Putakume”-ren kidekoa da.

Putrezar

Barrabaskeriak egiten dituen emakumeari esaten zaio.
Emakume putrezar orrek oañ ee ein dik, pa!

Sasikume

Garai batean, ezkontzaz kanpo jaiotako umeari esaten zitzaion (kanpotik ekarritakoa, adibidez). Gaur egun, “putakume”-ren zentzu berean erabiltzen da.
Sasikume alakoa, gauze txarrak ein, da batee ajolik ez!

Sator

Sator-antzean ibiltzen denari esaten zaio; alegia, muturra toki eta saltsa guztietan sartu, eta azkenean dena izorratzen duenari.
Satorra! Ao geldi!
Ongi daoren gauzek gaizki jartze'tto sator orrek beti!

Sorgin

Neska gaiztoari esaten zaio.
Sorgiñ zikiñ oi arrapatuko banu!

Sublebatu

Gaztelaniazko *sublevado*-tik datorren irain-hitza da.
Ez ai sublebatue izan, faorez!

Sugea baino beroago

Gaztelaniazko *puta*.
Subea baño berooa da oi!

Tekeloso

Tekelan ibili zaleari esaten zaio; alegia, teman aritzea gustatzen zaiona.

Ue tekelosoa; izketan aittu, da, gauze at gustatze ez bazaio, aserretu eitten da. Sekule eztao konforme!

Traizionero

Iruzurtia, tranposoa.
Gaztelaniazko *traicionero*-tik datorren hitza da.
Traizionero zikiñe!

Txaketero

Gaztelaniazko *chaquetero*-ren esanahi bera du; alegia, komeni zaionaren alde aritzen dena.
I, txaketeroa aiz geo! Igual tzaizo alde atea o bestea, e!

Txintxarri

Oso hiztuna den neskari esaten zaio.
Txintxarri oe biar ee etorriko a, koltxonak eitteko eskatzea!

Txitak adina fundamentu

Fundamentu gutxiko pertsonari esaten zaio.
Tittek aña fundamento ezto orrek!

Txitxarro

Oso jostaria eta alaia den umeaz esaten da.
Ara goe txitxarroa!
Jostaketaako emen da goe txitxarroa!

Txoriburu

Gogo beste nonbait duenari esaten zaio.
I, txoriburu, non aallen, Aanbeloar⁶ o...!

Txoro

Izketan asi, ta kasoik etzeek eiñ txoro orrek!

Txolin

Neskei buruz, txotxolo samarra dena.
Txoliñ oe betiko muun zeallen atzo de!

Txotxolo

Txotxoloa!

Urde

“Kabroi”-ren kidekoa da.
Urdea!
Zerri urde oe!

Ustel

Ustel oe gaur ee eziñ ixilik eon!

Zahartu

Oe fiure aoke orrek, ziero zartue dao!

⁶ Aanbeloa: Malloetako toki bat da.

Zakarripurdi

Ipurdia aipatu arren, ez dio hari erreferentzia egiten, pertsonaren izaera baldarrari baizik. Esanak gaizki hartzen dituenari esaten zaio.

Zakarrrepurdi orri eziñ ezer esan, betiko muun jarrikok!

Zakil

“Astapotro”-ren kidekoa.

Zakille aiz i geo!

Zaldiko

Umeei buruz, handikotea eta baldar samarra denari esaten zaio.

Motiko ao zaldikoa ok, i!

Zangano

Alferrari esaten zaio.

Gaur ee etxean tzeoan, da ez tik kolpeik ee jo zangano orrek!

Zerri

“Kabroi”-ren kidekoa da.

Gañakoan, txaoa ondoan kastellano zerri oik gaiztoak izaten dee.

Alper-antza izan zerri ue!

Izengoititako ere erabiltzen da: Manuel Zerri.

Zikin

Hona adibideak:

Oitako moro zikiñe etzu iiltzen tzien len saltzen.

Nazkagarri zikiñ oi! Ze itten tzaio oni?

Ta jeki men tzen, da an emen zealtzen beiek marruz, ta mandu-elbi txar bat omen tzeon beien gañean:

—Arraio, zikiñe, or ao! —esan emen tzion.

Zipotz

Ergela, umore txarrekoa, zaputza.

Zipotza aiz i geo, e!

Zirikazale

Zirikaka aritzeko ohitura duenari deitzen zaio.

Zorri-poltsa

Zikina, narratsa.

Zorri-polts orreei emango nioke nik, pai!

Zorrizu

Berez, zorri asko dauzkana da zorrizua; baina, oro har, zikina denari esaten zaio.

Zuhur

Berea dena bestee kin banatzea kostatzen zaionari esaten zaio.

Beti bezala aittuk gaurko apariñ zur oe! Zurrerin!

Zurrunbilo

Bazterrak nahasten ibiltzen denaz esaten da.

Zurrunbilloa!
Gaur ee ein dok bee zurrunbilloa, bai!

Zurrutero

Eguna zurrutean eta mozorkerian pasatzen duenari esaten zaio.
Guizean jeki urduko asiko a eaten zurrutero oe!

d. Zirtoak edo ateraldiak

Atal honetan, bestelako irain-esapide batzuk bildu ditugu, egoera jakin eta berezietan sortutako zirto eta ateraldietatik jasotakoak, hain zuzen ere.

Zenbait istorio emango ditugu hemen. Benetako egoerak dira, egunero-koan gerta daitezkeen egoerak. Egoera horietan, gertaera bat kontatzen zaigu lehenik, eta, ondoren, gertaera horrek ekarritako zirto, ateraldi edo madarikazioa. Zirtoen egitura antzekoa dela ikusiko dugu: solaskideari “zerbait” desiratzen zaio, eta, horretarako, ‘Aditza geroaldian + *al* partikula + Aditz-laguntzailea’ egitura baliatzen da (adibidez, *bertan geittuko al aiz!*). Egitura hori gaztelaniazko ‘*ojalá que...*’ egituraren parekoa dela esan daiteke.

Bertan gelditu

Norbaiti zorte txarra edo desgaziren bat desiratzeko, honako esapide hau erabiltzen da:

Bertan geittuko al aiz, pa!

Eztarrin gelditu

Etxe batean bazkaltzen ari direla, jana mahaitik kentzen dio batek beste bati. Honela erantzuten dio:

Dios, eztarrin geittuko al tzaik, pa!

Hanka hautsi

Batek beste bati ostikoa ematen dio, eta honela esaten dio:

Anka oi autsi ingo al tzaik, ba!

Ito

Batek beste bati eskuetatik zerbait kentzen dio (goxoki bat, adibidez), eta madarikazioa botatzen dio:

Itto ingo al aiz, ba!

Itsututa

Lanean ari direla, batek beste bati hautsa botatzen dio begietara; hona bestearen erantzuna:

Itsututa geatuko al aiz!

Katua jaio

Hona istorioa: mutil batek larrutan egiteko proposamena egin omen zion neska bati, baina neskak ezetz eta ezetz. Etsiturik, desafioa edo iraina bota zion mutilak neska horri: “Katue jaioko al zain!”. Neskak burutan hartu zuen mutil hark esandakoa. Denbora baten buruan, zera esan zion neska horri bere amak: “Zer don, neska? Erakustan”. Ezetz, alabak. Orduan, amak gonak altxarazi omen zizkion neskatoari; neskatoak esan zuen: “Ze katu zarra, ama!”.

Alegia, neskato horri bizarrak atera omen zitzaizkion aluan, eta, ezjakinean, mutil hark botatako desafioaren ondorioztat hartu zuen.

Lepoa hautsi

Herrian, kalean, gurdiekin lanean ari direla, batek beste bati traba egiten dio gurdiairekin. Hona bestearen maldizioa:

Lepoa autsiko al dok, pa!

Lepoker geratu

Pertsona bat kaletik oinez doa, eta, etxe baten ondotik pasatzean, leiho aldera begiratzen du, zelatan egin nahian. Barnean dagoenak hauxe botatzen dio:

Lepoker geatuko al aiz!

Maingu

Mutil bat kaletik txistuka doa, eta beste batek, haren paretik pasatzean, zangarte egiten dio. Hona hemen mutilaren erantzuna:

Mainki geatuko al aiz!

Zerriari gorrintzin

Bazkari batean, batek beste bati jana lapurtzen dio. Hona bestearen purrustada:

Zerri orri gorrintzin emango al dik, pa!

Oharra: beherakoari esaten zaio *gorrintzin*.

e. Epistolak⁷

Garai batean, herriei goitizenak jartzen zitzaizkien, herritarren ospea zela eta. Oraindik ere bizirik diraute horiek, baina gero eta gutxiago erabiltzen dira.

Artajale

Araizko goiko herrietan –Intza, Uztegi, Gaintza eta Azkarate– bizi direnei esaten zaie: “Goierriarak, artajaleak”. Beteluko hiztun batek honela esan zigun:

Talo asko jaten zuen nonbatt, guk e oañ e jate’u guk.

Baliteke garai batean taloa pobreziaren ikurtzat hartzea (betidanikoa da *Goierriko* eta *Beierriko* herritarren arteko desberdintasun handia; nabaria da baserritarak / kaletarrak bereizketa).

Basaka

Atalluarren epistola da: “Atalluarrak, baxakak!”. Honela zioten hiztun batzuek:

Atallukoai basakak. Onen attek: “Basakak dittuk Atallun, baxakak”. *Silvestre* esan nai du, baxaka.

Baxakak, basati bezala; etxe at basoan da beste at olakoan o... baxakas bintzet. Ola, izu-antza bezala baitzeen, zipotz-antza bezala neskak ee, bai! [barreak]

⁷ *Araitz-Beteluko ahozko tradizioa* lan argitaragabetik hartutako informazioa –batik bat– baliatu dugu atal hau osatzeko.

Cuerno Azkarate

Gaur egun, *adarrak* esaten zaie Azkaratekoei; badirudi, ordea, *cuerno Azkarate*-tik datorrela dena. Hona azkaratearren epistolaren historia:

Esan nizuen, ba, geo, Askaateko atee de ze een tzion emengo motillek... Baai, *cuerno* Azkarate. Esa nizuen, ba! Askaateko neskan batekin iiltze men tzen emengo motille, da... beotu due nonbatte, da neska... neskak utzi, ta, geo, beste atekin ezkondu. Da ezkontzeko... bodako gauean aarra artu, beie... beieen o irin aarra artu, ta etxe gorako kaskotik jotze men tzion, uuuuuuu! Eta jotze men zien, da arrapatu eñ emen tzien. Da arrapatu, ta Iruñea eaman denuntziatzea, Iruñea eaman. Da Iruñean ain grazie artu men tzien, *cuerno* Azkarate. Da, geo... geo de ue eaman zuen leku artan bertan sekuleko aarra eote men tzen, *cuerno* Azkarate Iruñean; oñ e esango zizuke jende zar oik; *cuerno* Azkarate!

Mami-janzale

Errazkindarrei esaten zaie⁸: “Errazkindarrak, mami-jantzaleak”.

Ez dago garbi zer esan nahi ote duen.

Adibidea:

Da errazkindarrak mami-jantzaleak; pestetan-da noiznae izketan, da: “Mamie baduu?” esate men tzuen, ba.

Marrajo

Intzako jendeari esaten zaio. Hona lekukotasuna:

Marrajos de Intza.

Da zeatik marrajos?

Marrajo-antza baitee... baitzeen lengo attuna[k] bintzet...

Biño ze esan nai do marrajo itzek?

Orrek esan nae do, konpaazio atea, gauz pet eo gauz pet esateko orrek, neoj! Erdie esan, da beste marrajo... tranposoak, tranposoak; marrajos de Intza. (...)

Matutiano

Gaintzakoei esaten zaie: “Gaintzetarrak, matutianos!”. Inork ez digu, ordea, garbi azaldu zergatik.

Fantasioso

Beteluarrez eta arribetarrez esaten da:

Arribe, hermoso

Atallo, mocoso

Betelu, fantasioso.

Nola esa nizuen... eon, bai, fantasiosos de Arriba, zapataundis de Betelu [euskal ahoskeraz]. (...)

Da Arribekoak zeatik fantasiosok?

Ze esango izo[t] nik, jendea beti txuloxaoa, ba, ba, oixe.

⁸ Larraun ibarrean dago Errazkin herria; nolanahi ere, hartu-eman estua dute errazkindarrek araztar zein beteluarrekin.

Sesionista

“Uztegiarrak, sesionistak!”. Aspaldi gaintzatarren eta uztegiarren artean izandako auzi baten ondorioz jarri omen zieten uztegiarrei epistola hori.

Zapata-handi

Handiustea esan nahi du.

Beteluarren fama da:

Betelukoak etziñun ekosiko zapatillekin d’ola, gu bezala espartziñekin-da. [barreak] (...)

Horietaz gain, beste hiru epistola ere bildu zituen D. Intzak Araitzen: *Arribe ta Atallo, urre gorriz bataio* (bi herri horien aberastasunari eta eskuza-baltasunari egotzi zion Intzak esaera hori), *Askarate ta Bedaio, alkar ezin eraio* (bi herri horien arteko ezinikusia dela-eta sortutako esaera, Intzaren iritziz) eta *Atallu: kopetan bi kankallu* (1974: 27, 31).

f. Pertsona-izengoitiak

Ohitura handia dago Araitz-Betelun jendeari izengoitiak jartzeko. Pertsonaren izaeraren eta itxuraren arabera izaten dira izengoitiak⁹. Beste batzuetan, ordea, ez dago oso garbi izengoitiak nondik ote datozen.

Haietako batzuk zerrendatu eta azalduko ditugu atal honetan:

- *Arranxau*: oso iskanbilatsua eta zaratsua omen zen emakume hura.
- *Arrasteiko mutue*: oso gutxi hitz egiten omen zuen.
- *Beteginario muñagorri*: al baitaria omen zen hura (*veterinario*), eta ton-to samarra, gainera; horregatik, *muñagorri* (‘(buruko) muin gorri’) esaten zioten.
- *Eansusteiko motor*: gelditu gabe lan egiten zuen gizon bati deitzen zioten horrela.
- *Insusteiko enforru*: bere kontuak beretzako gordetzen omen zituen gizon bat zen.
- *Insusteiko maimai*: gauza guztiei “bai, bai” esaten omen zien gizon bat zen; era berezian esaten omen zuen hori, gainera.
- *Insusteiko patoa*: lepo luze-luzea omen zuen.
- *Kankarro*: harroputza zelako esaten zioten hala.
- *Maria Tolosa*: Tolosara joateko joera handia zuen emakume hark.
- *Mattin mottela*: oso lasaia eta patxadatsua omen zen.
- *Matxindoko panaarro*: ilea harro-harro eginda eta kolorez margotuta ibiltzen omen zen.
- *Matxindoko putis*: mukiak mahukan garbitzen zituelako esaten omen zioten *putis*.
- *Mikela txintxarri*: asko hitz egiten zuen emakume bat zen.
- *Paskual txiki*: oso txikia omen zen.
- *Pello lata*: beti lata ematen aritzen omen zen gizona.
- *Pello porreta*: xeble samarra omen zen hura.

⁹ Bada beste biderik, ordea, pertsona-izengoitiak sortzeko; izan ere, oso ohikoak dira pertsonaren jaiotetxea eta abizena aipatzen dituzten pertsona-izengoitiak (Salberri, Etarte, Artosi, Lazkao, Goiko, Olatxo, Martiko, Ipintza, eta abar).

- *Peu beltza*: oso beltzarana omen zen.
- *Sotoko bruja*: baserri jakin bateko emakume neskazahar bati esaten zioten; ukenduak eta sorginkeriak egiten zituelako susmoa zebilen bailaran.

Azkenik, esan dezagun etxeko abereei ere izengoitiak jartzen zaizkiela. Adibide bat ematearren, *Txantxirrinkin* esaten zioten Gaintzako behi bati, bazter guztietatik ibiltzeko ohitura zuela eta.

BIBLIOGRAFIA

- APALAUZA OLLO, A. eta ARRAZTIO SARALEGI, K., 2005, *Araitz-Beteluko ahozko tradizioa* [lan argitaragabea], Araitzko eta Beteluko Udalak.
- AURKENERENA, J.; GARCIA UGARTE, C. eta ZELAIA MENDIZABAL, J., 1999, *Irainka. Euskal irainen bilduma*, Gero/Mensajero: Bilbo.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- INTZA, D., 1974, *Naparroa-ko euskal esaera zaharrak*, Nafarroako Foru Aldundia: Iruñea.
- KAMINO KAMINONDO, P.; SALABERRI ZARATIEGI, P. eta ZUBIRI LUJANBIO, J. J., 2004, “Luzaideko hizkera adierazkorra. 1. Sakreak”, *FLV*, 96, 317-332.
- , 2005, “Goizuetako hizkera adierazkorra: biraoak”, *FLV*, 99, 411-452.
- OLANO, M., 2005, *Aio, Leitze! Leitzako euskararen hiztegia. Etnografia, corpusa, dialektologia*, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea (Leitzako, Goizuetako, Aresoko eta Aranoko Udalak).

LABURPENA

Nafarroako Araitz-Betelu ibarrean jasotako sakre edo biraoen bilduma dakar artikulu honek. Araitz-Betelun erabiltzen diren irain-hitz, iseka-modu edota madarikazioak bildu dira. Sei atal bereizi dira bilduma hori egiteko orduan: lehendabizikoan, harridura-hitzak eta -esapideak bildu dira; bigarrenean, akats fisikoak txarresteko hitzak eta esamoldeak; hirugarrenean, nortasun-ezaugarriak txarrestekoak; laugarrenean, zirtoak edo ateraldiak; bosgarrenean, epistolak (herriei jarritako goitzenak); azkenik, seigarrenean, pertsona-izengoitiak jaso dira.

RESUMEN

El presente artículo tiene como objetivo mostrar una recopilación de las palabras y expresiones que se utilizan en el valle de Araitz-Betelu (Navarra) para echar maldiciones, juramentos e insultos. Hemos dividido el trabajo en seis partes: en la primera, hemos agrupado algunas interjecciones tomadas de situaciones de enfado, asombro o desacuerdo, en la segunda hemos recopilado expresiones y palabras que se utilizan para hacer referencia a defectos físicos de las personas, en la tercera se hallan las que hacen referencia a defectos de personalidad, en la cuarta hemos presentado una serie de ejemplos de réplicas ingeniosas o dichos graciosos tomados de situaciones concretas, en la quinta hemos enumerado los seudónimos o apodos aplicados a cada uno de los pueblos del valle, y, por último, en la sexta parte se muestran algunos de los mote aplicados a vecinos de la zona.

RÉSUMÉ

Cet article a pour but de montrer une compilation des mots et expressions qui sont utilisées dans la vallée de Araitz-Betelu (Navarre) pour lancer des malédictions et des insultes et proférer des jurements. Nous avons divisé le travail en trois parties: dans la première nous avons regroupé certaines interjec-

tions prises dans des situations de colère, d'étonnement ou de désaccord, dans la seconde nous avons compilé des expressions et des mots qui sont utilisés pour faire allusion à des tares physiques des personnes, dans la troisième on trouve celles qui font allusion aux défauts liés à la personnalité, dans la quatrième nous avons présenté une suite d'exemples de mots d'esprit ou de jeux de mots amusants pris de situations concrètes, dans la cinquième nous avons énuméré les pseudonymes ou les surnoms attribués à chacun des villages de la vallée, et dans la sixième partie nous montrons certains surnoms attribués à des habitants de la zone.

ABSTRACT

The present article aims to provide a compilation of the words and expressions used in the Valley of Araitz-Betelu (Navarra) as curses, oaths and insults. The article is divided into six parts: the first groups together some interjections taken from situations of anger, surprise or disagreement; the second compiles expressions and words used to refer to physical defects; the third is a collection of those referring to defects of personality; the fourth presents a set of examples of ingenious replies or witty comments taken from specific situations; the fifth lists the pseudonyms applied to each of the villages in the valley; and, finally, the sixth gives some of the nicknames used for local residents.